



**Betiko eta gaurko doinuak dantzarekin maisuki "Uztartuz" Alurr.-** Ibarako Alurr dantza taldeak estreinekoz erakutsi zuen bere azken lana "Uztartuz" larunbatean Manuel Lekuonan. Taldea behin baino gehiagotan izan da bere dantzak erakusten herrian eta ikusle andana erakarri zuen beste behin ere. Euskal dantza, kantuak, euskara bera lanaren gai nagusi izanda, maisuki uztartu dituzte gaur egungo euskarazko musika betiko euskal dantza pausoeekin. Ikuskizun apurtzaile eta polita eskaini zuten ikusleen gozamenarako. Laugarren ikuskizuna da "Uztartuz" 2008 urtean, "Sua", 2010ean "Oinazez" eta iaz "Izanak dirau, 1512" lanak aurkeztu ondoren.

### 3 HERRIRA Mosaikoa eta erromeria presoan eskubideen alde

Lasarte-Oriako Herrirak deituta, larunbatean "M18 Plaza-ara" lelopean ekintzak burutu ziren. Okendo plazan bildutako herritarrek mosaikoa osatu zuten lehenengo eta ondoren, pintxo dastatzea, edatekoak eta erromeria izan ziren presoan eskubideak aldarrikatzeko.

### 5 KUKUKA Ekainaren 5etik 15era Antzerki eta Dantza Astea

Beste urte batez Kukukak antzerki eta dantza aste berezia antolatu du. Ostiralean aurkeztu zuten egitaraua. Honen baitan desfile erraldoia, antzerkiak eta dantza ikuskizunak izango dira nagusi Lasarte-Orian hamabost egunez. Aurtengoa 11. edizioa dute Kukukakoek.



### 6 KIROLA Areto-futboleko finala Txindokirentzat

Kontsolazioko txapelduna Albañileria Vertical izan zen Ana eta Soi taldeari 3-2 irabaziz. Finalean, luzapenaren bigarren zatia amaiaren eskuratu zuen txapela Txindokik. Ostadarrek Asier Sagastiri kirolari onena saria eta Auzolan saria Saharar herriaren lagunak elkarteari eman zion.

**Bideo Lagunak**  
**TIEN 21**  
Etxekotresna elektrikoetan adituak

**Garbigailuak**

BALAY 6 kg 1200 rpm	PANASONIC 7 kg 1800 rpm Display digital
---------------------------	--

299€      359€

gure facebookeko jarraitzaileen artean, argazki kamera hau zozketatuko dugu

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

## Adituak dio



**Oihana Salazar**  
Psikoterapeuta

Azken urteetan familia egituraren mugimendu ugari eman da. Urteetan zehar eredu bakarra onartu badugu ere, gure ingurura begiratu besterik ez dugu aldaketaz jabetzeko.

Nork defini dezake zein den familia eredu? Askotan betikotasunetik ateratzen diogu, baina familia bat zertan da beste bat baino eredu-garriagoa?

Familiak mila eratara osa daitezke, eta haurraren garrantzian eragina eta garrantzia du, dudarik gabe. Garrantzitsuena, ez da egitura bera, familia barnean sortzen diren erlazio eta funtzioak baizik.

Haurraren garapen psikologikoan faktore ezberdinek eragin dezakete: erlazio emozional eta afektibo aztoratuek, sostegurik ezak, laguntza gabeziak... Arrisku faktore hauek edozein familian ager daitezke, ez egitura edota antolaketa jakin bat duen familian soilik.

Familiaren ikuspuntua zabal eta malgua izatea ezinbestekoa da: aniztasunari eta heterogeneotasunari lotua. Familian, talde partaidetza sentimendua sortzen da, partaiden arteko konpromezu personal handia; harreman intimoak, elkarreragina eta baita dependentzia ere. Jar diezaiegun arreta faktore hauei, hor baitago garapen psikologikoaren gakoak.

Nahi edo ez, jaiotzen edota hazten garen familia sistemak berez du eragina gudan. Horrek zenbaiteraino mugatzen gaituen, ordea, beste kontu bat da.

## Eredu ezberdinak

Familia ereduaren kontua beti pil-pilean dagoen gaia dela dirudi. Azken asteetan abortoa legea moldatzeko Espainiako gobernuak egin duen proposamena tartean-ko ari gara honen inguruan entzuten. Aspaldi diote adituek gizartea zahartzen ari dela gurean, seme-alaba gutxiago ekartzen direla eta emakumeek ama izateko erabakia geroz eta adin gehiagorekin hartzen dutela honek suposatzen duen guztiarekin.

Bestalde, familia ereduak aldatu dela ere nabarmena da, bikote homosexualen seme-alabak, banadutako bikoteenak, ama bakarrik izatea erabakitzen duten emakumeenak... Herritarrei galdetuta familia ereduak aldatu dela argi ikusten dute eta baten bati pena ere ematen dio. Garai batean fami-

lia "tradizionalaren" baitan lau edo bost seme-alaba izatea zen arruntena baina egungo lan baldintzak edo denbora faltak besteak beste, familiak seme-alaba bakarrera mugatzea eraman du kasu askotan. Arrazoiak "beste era bateko mundu batera ohitu eta beste behar batzuk" ere badiotz esaten dute herritarrek, agian behar berri horien baitan seme-alabak edukitzea geratu da azken postuetan.

Argi gelditzen dena da, denbora urri horren adibide gurasoek garai honetan hartzen duten "lana". Haurren oporrak ez dagoz bat gurasoek dituztenekin eta noski, denbora honetan beraiekin zer egin eta non utzi bihurtzen da kezka. Aukeran badira ekintzak, baina beti omen daude gaituzte beharrek zailtasunak.

## Talaiatik

## Hitz eta pitz

## Zergatik aldatu da familia ereduak?

**Haizea Elizondo**

Diruarengatik eta erosotasunarengatik. Gainera, orain gehienok etxetik kanpora lan egiten dugu, eta zaila da. Gauzak aldatu dira zentzu horretan, baina aldatu behar zuten bezainbeste ez. Ez da erraza etxeko lana eta kalekoa uztartzea. Gero eta indibidualistagoak gara, eta zaila da familia handi bat orekatu mantentzea. Nik momentuz bakarrarekin nahikoa lan daukat.

**Karlos Gil**

Asko aldatu da, gehienbat diruarengatik, lanarengatik eta denborak aldatu direlako. Lehen emazteak etxean ziren, baina gaur desberdina da panorama. Gainera, kanpora joaten gara lanera, eta adibidez, nik neuk ez daukat denborarik. Esaten zuten haurrek besapean zekartela ogia, baina, gaur egun, fakturarekin etortzen dira. Lehen aitaren lanarekin nahikoa zen, baina, orain ez.

**Mari Carmen Sanchez**

Nik bost izan nituen. Baina gaur egun, ez daukate ia lanik. Ez dago haurrak mantentzeko dirurik. Beti lan bila dabilta eta ez dago denborarik besteetarako. Kanpotik etortzen direnek edukitzen dituzte seme-alaba asko. Ordainsaria ematen zaie eta. Nire gurasoak ere joan ziren Frantziara lanera, eta han ez zegoen laguntzarik. Lana egiten bazenuen bazenuen, eta bestela ez.

**Jose Mari Elizegi**

Zergak, dirua, krisia, lanik ez dagoelako... baina, ez horregatik bakarrik: bizimodua aldatu egin da. Gure garaiak, ezkondu eta seme-alabak edukitzen genituen. Orain, ezkondu eta programatu egiten dute gazteek: "Urte batzuetan ondo biziko gara eta gero ikusiko dugu". Gero eta beranduago edukitzen dira umeak. Beste era bateko mundu batera ohitu gara. Beste behar batzuk ditugu.

## Iruditan



Oriako Kerejeta familia XX.mende hasieran ateratako irudian. Antxon Agirre Sorondoren liburutik

## Familia

Herriaren historia jasotzen duten liburu ezberdinetan azaltzen da beti nolakoak ziren Lasarte-Oriar bizi ziren familiak. XX. mende hasieran, fabriketan lan egiten zuten familien kasuan esaterako, aruntena aita hauetan lan egitea zen eta etxean emazteak lau, bost seme-alaben zaintzan aritza. "Ugariak izan ohi ziren familiak eta sarritan, seme-alabarik izan ez, edo gutxi izatekotan hurbileko ahaideen haurren bat adoptatzen zuten". Base-rietan ere familiak ugariak izateaz gain, ohikoa zen aitona-amonekin bizitzea baita ezkongabeko izeba osabekin ere.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



## Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I.,  
Maider Azumendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:  
Xabier Arnadoz

## HERRIRA

# “Plazara” presoen eskubideak aldarrikatzeko

*Lasarte-Oriako Herrirak bat egin nahi izan zuen larunbatean presoen eskubideen alde deitutako ekimenekin*

Larunbata arratsaldean hainbat izan ziren Lasarte-Oriako Herrirak deituta eta “M18 Plazara” lelopean burutuak ekintzak. Okendon bildutako herritarrek mosaikoa osatu zuten lehenengo eta ondoren, pintxo dastatzea, edatekoak eta erromeria izan ziren presoen eskubideak aldarrikatzeko. Herrirak Euskal Herri osoan deituriko mobilizazio egunarekin presoen oinarriko giza eskubideak errespetatzea eta gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea; Euskal presoak Euskal Herriratzea eta espetxe zigorren luzatzearekin amaitu eta bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten legeen derogazioa eskatu nahi izan du.

## Maider AZURMENDI

Jai giroan burutu nahi izan zuen Lasarte-Oriako Herrirak “M18 Plazara” ekimena. Larunbata arratsaldean Okendo plazan mosaiko erraldoia osatu zuten berataratutakoek lehenengo eta ondoren, pintxo dastaketa eta erromeria egin zuten presoen eskubideak aldarrikatzeko helburuarekin.

Lasarte-Oriako Herrirak azaldu moduan, “aldarrikapenei bultzada handia emateko maiatzaren 18a mobilizazio eguna izan da Euskal Herriko herri guztietan eta Lasarte-Oriak ere bat egin nahi izan du M18 Plazara herri ekimenarekin”. Izan ere, “gure herrian egoera hau bizi duten hainbat preso daudelako. Bi lasarteoriarrek bizi osoko kartzela zigorra dute, beste bi

zain daude kondena luzatuko dieten edo ez jakiteko eta Ibon Fernandez Iradi berriz, larriki gaixo dago espetxean”.

Egoera hauek salatu eta presoen eskubideak aldarrikatzea beharrezkoa ikusten dute ekimenaren sustatzaileek herrian horregatik hainbat herritar izan ziren Okendo plazan.

## Jai giroa

Pintxoak eta edari postua jarri zuen Herrirak Okendo plazako arkupetan eta erromeria doinuarekin bakar batzuk dantzara ere animatu ziren.

Hasiere batean, eta oso eguraldi txarra emanda zegoelako, Loidibarrenen egitekoak ziren ekintza baina “euriak tarteat utzi du eta Okendon jende gehiago hurbilduko zela pentsatuta egin dugu



Erromeria giroan merienda egiteko aukera izan da Okendo plazako arkupetan izan ere, euriak atsedean gutxi eman du.

hemen. Egia esan hala izan da”.

## Mobilizazioa

Herrirak Euskal Herri osoan deituriko mobilizazioarekin “presoen oinarriko giza eskubideak errespetatzea eta gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea; Euskal presoak Euskal Herriratzea eta espetxe zigorren luzatzearekin amaitu eta bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten legeen derogazioa” eskatu nahi izan du.



Okendon mosaikoa osatu dute Herrirak deituta berataratutako herritarrek.

## Espainiako bandera Udaletxeko balkoian jartzearen aurka

Lasarte-Oriako zinegotzi eta zinegotzi-ohi abertzale eta errepublikazale talde bat bildu zen ostiral arratsaldean Udaletxeko aretoan elkarretaratzeko bateratu bat egiteko. EH Bildu, EAJ, eta EB-ko zinegotziak bertaratu ziren hainbat herritarrez lagunduta.

Euren alderdien “koloreak” bazterrean utzita, Espainiako banderaren inposaketa salatu nahi izan zuten ostiral iluntzeko kontzentrazioan.

Izan ere, apirilaren 26tik hasita bi hilabeteko epean Espainiako bandera Udaletxeko balkoian jartzeko agindua emana du Carlos Urkijok, EAEn Espainiako gobernuko ordezkaririk denak.

Erabakiaren aurrean, manifestu bat irakurri zuten ostiralean Estitxu Alkortak, Pablo Barrio alkateak eta Ricardo Ortigak: “Argi eta garbi jakin behar dute bandera edo sinboloen inposaketek ez dutela herri baten nortasu-

na, identitatea eta izateko modua aldatuko”.

Azpiarratu zuten era berean Lasarte-Oriako egun seinatuarekin ikurrina eta Lasarte-Oriako bandera “normaltasunez” altxatu izan direla inoren sentimendurik “urratu” gabe eta ez dute hori aldatzeko beharrik ikusten.

Urkijoren erabakia, hortaz, “gatazka eta talka sortzaile” izango delakoan daude eta orain arte bezala jarraitzea eskatzen dute, Espainiako bandera jarri beharrik izan gabe.

## Ikurrinaren aldeko ekintzak

Egoeraren aurrean, dagoeneko martxan dauden ekimenen berri eman zuten ere herritarrek hauetan parte har dezaten.

Batetik, [www.lasarteoriangureikurrak.com](http://www.lasarteoriangureikurrak.com) webgurea martxan jarri dute manifestua osorik irakurri ahal izateko.



Lasarte-Oriako orain artean izandako eta gaur egungo zinegotzi abertzale eta errepublikazaleak Udaletxean.

Bestetik, ikurrina eskutan hartuta, lagun koadrila, talde edo elkartearen argazki bat egin eta [lasarteoriangureikurrak@gmail.com](mailto:lasarteoriangureikurrak@gmail.com) helbidera bidaltzeko deialdia luzatu

zuten, ostean mosaiko erraldoi bat osatu nahi da argazki guztietan.

Azkenik, ekainerako ikurrinaren aldeko ekintzak presatzen ari direla zehaztu eta

proposamenen bat duten herritarrek [lasarteoriangureikurrak@gmail.com](mailto:lasarteoriangureikurrak@gmail.com) helbidera mezuak idaztera animatu nahi izan zituzten bertan bildutakoek.

# “Helburua mendian disfrutatzea da”

► Lau herritar izango dira igandean Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartzen ► 42 km eta 5.472 metroko gora behera metatua du lasterketak, dortsala eskuratzea saria izan da haientzat

Mendi maratoiaren artean Zegama-Aizkorri nazioarte mailako izena du. Izena baino dagoeneko izana, Mendi Maratoiaren Munduko Kopako proba puntuagarria delako 2004. urtetik. Proba handia da eta parte hartzea ez da erraza, partaide kopurua mugatua da urtero 450 eta dortsalak izena ematen dutenen artean Zegamako udaletxean egiten den zozketa publikoan banatzen dira. Hain zuzen zailtasun honengatik ere berezia da aurten lau herritar izatea igandean bertan parte hartzen, Endika Gartzia, Iñaki Letamendi, Iraitz Arruabarrena eta Julen Ollokiegi.

**Maidar AZURMENDI**

Zegama-Aizkorri lasterketa izango da maiatzaren 26an, igandean. Mundu mailako zirkuituaren baitan dagoen mendi maratoia da eta urtero milaka lagun dira honetan parte hartzeko izena ematen dutenek. Guztira 250 dortsal inguru dira zozketan banatzen direnak, besteak munduko txapelketetan eta Euskal Herri mailan puntan dabilen kirolariaren artean banatzen dira. Zailtasun hauek gaituz, aurten Lasarte-Oriatik Endika Gartzia, Julen Ollokiegi, Iñaki Letamendi eta Iraitz Arruabarrena izango dira Salomon taldeko profesionalen norgehiagokan.

Aurretik 42km-ko ibilbidea, 5.472 metroko gora-behera metatua eta gehienez 8 ordu ibilbidea osatzeko. Proba Zegamako erdigunetik abiatuko da igandean, goizeko 9:00etan.

Lau korrikariak azken prestaketa eta entrenamenduak egiteko astea dute hau. Gehienek asteburua baliatu dute ibilbidea ezagutu edota entrenamenduluz, “bost ordu ingurukoa”. Julen eta Iraitzentzat bigarren

aldia da, Iñaki eta Endikarentzat berriz, lehenengoa eta gogotsu daude. Tartetxo batean beraien kontatu digute proba nola prestatzen duten.

## Dorsal gutxi

Kirolarientzat lehengo zailtasuna dortsala bera eskuratzea da “jende askok nahi du parte hartu eta dortsalak gutxi dira, gainera zozketan soilik 250 ateratzen dira”. Iraitzen kasuan, “abenduan Zegamako San Silvestrean parte hartu nuen ania eta lagun batzuekin bertan dortsal batzuk zozketatzen direlako eta anaiari egokitu zitzaion. Berak eman dit”. Iñaki eta Julenen kasuan zozketan zorionekoak izan ziren “hiru urtetan izena eman eta aurten egokitu zait lehenengo aldiz” azaltzen du Iñakik.

Endikarena berriz, bestelako egoera da “Euskal Herri mailako lasterketatan ondo ibiltzen direnen artean dortsal batzuk banatzen dira eta niri bat eman didate lehenengoz meritoengatik” Bidarraiko lasterketa irabazi, Tenerifeko Canarias Anaga proban bigarren egiteagatik eta orokorrean egindako zirkuitu erregularra saritzeko modua izan dela azaltzen du. Arratzu, Urnietan, Bera eta Erlaitzeko lasterketak egin ditu dagoeneko eta

“maila onean nago beraz ondo ibiltzea espero dut”.

## Helburua disfrutatzea

“Jendeari arraroa egiten zaio baina gure helburu nagusia mendian disfrutatzea da” diote korrikariak “horretan ados gaude, mendian ibiltzea gustatzen zaigu eta ahalik eta gutxien sufritzea bilatzen dugu”.

Helburu nagusia disfrutatzea bada, marka darabilte buruan Iraitz, Julen eta Endikak. Iraitzek lehenengo aldi oso gaizki bukatu zuela gogoran du eta “sentsazio hori hobetu behar dut, asmoa 5 ordutik jaitea da”.

Julenen iritziz “batzuetan helburua oso altua jartzen diogu gure buruari”, nahia 5 ordutik jaitea du ere “baina hori lortzeko korrika asko egin behar da”. Orain hiru urte egin zuen lehenengo aldiz Zegama-Aizkorri “oso egun xelebre izan zen, karrera nahiko zirkobihurtu zen elurra egin zigulako eta Atxuritik Urbirako jaitisieran, normalean 8 minututan jaisten nuena, 15 minututan egin behar izan nuen lokatza, elurak oso arriskutsu jarri zuelako”. “Behatza bat atera zitzaidan, buruan zauria egin nuen, orduarte oso ondo nindoan baina hortik aurrera sufrikario bat izan zen. Orduan 5 ordu eta 27 minututan bukatu nuen eta hori jaitea ondo legoke, hiru urte ere pasa dira eta horiek ere pisatzen dute”.

Endikak ere buruan bost orduko muga darabil “dena ondo joanda, 4’30 gitea ere ikusten dut, hala ere faktore asko hartu behar dira kontutan, zu fisiokoki nola zauden, eguraldia, ibilbidearen egoe-

ra... gauza asko dira”. Mendi maratoiaren esperientzia dauka Endikak eta oso maila onean aritzen da, esperientzia hori Zegama-Aizkorri ere baliagarria izango zaiola ziur du. Hala ere, ikusle asko izaten da maratoian eta espero du emozioa neurtu ahal izatea eritimoa ez galtzeko “ikusleen animoek laguntzen dute gaizki zoazenean hala zaudela ahazteko, baina bestalde, ondo aritzearen nahi horretan eritimoa galtzeko arriskua ere bada”.

Iñakirentzat ordea denbora mugarik ez dago “muga antolakuntzak finkatutako zortzi orduak izango dira, nire nahia lasterketa bukatzea da eta ahalik eta gehien disfrutatzea ibilbidean zehar, ez dut nire burua estutu nahi”.

## Entrenamendu luzeak

Horrelako mendi maratoi bat prestatzea ez da erraza, “lau bost orduko tarreak bilatu behar dituzu entrenatzeko eta lana, familia... uzartzeko zaila da”. Hala ere, asteburuetan batez ere egiten da ahalegina. Igande goizetan Ostadarreko lagunekin elkartzan da Julen entrenatzeko, “sekretu gutxi dauka honek, lan asko, entrenamendua”.

Laurak asfaltoan hasi ziren korrika eta azken lau, bost urtetan dabilta mendian. Iraitz da gazteoa eta besteen hitzetan “arraroa da gazteak mendi lasterketetan ikustea” baina argi dauka “asfaltoan hasi nintzen eta berehala nazkatu nintzen, mendian ibiltzea askoz politagoa da eta gehiago gustatzen zait”.

Ibilbidea ezagutzera joan dira eta zatiren bat ere egin dute indarrak non neurtu beharko dituzten jakiteko. Bereziki bi leku

daude nahiko arriskutsuak izan daitezkeenak eta horietan egin beharrekoak zeintzuk izango diren ezagutzeko egin dituzte probak. Hala ere, “ez dut ibilbidearekin obsesionatu nahi, lasterketan disfrutatu eta beharrezkoa denean mantso joango naiz, erorketa larriak gerta daitezke haiz artean eta hori ekiditu nahi dut” dio Iñakik.

## Munduko Txapeldukin

Dieta bai azken astean hidrato gehiago hartzen dira baina bestela ez “goraka eramaten duzun kilo bat gehiago nabaritzen da eta ahalik eta arinen egon beharra dago” bestalde azpimarratzen du Endikak “nire kasuan dietista batek esan dit niretzako zein den pisu egokiena eta hilabete batzuk daramatzat zaintzen”.

Mundu mailako onenekin arituko dira lehian eta hori garrantzitsua da “ilusioa egiten du, behintzat irteeran, munduko txapelduak ikustea eta haiekin lehian aritzea”.

Laukote honentzat Zegama-Aizkorriekin ez da lana amaituko. Leitzan egiten den 65 km-koan arituko dira Iñaki eta Endika esaterako.

Igandera begira Iñakik argi dauka “ikusleen animoak asko eskertuko ditut eta horregatik, senide, lankide eta lagunei esan diet non kokatu” horregatik ere animatzen ditu herritarrak bertara gerturatzea “giro polita egoten da mendian eta herritarrak animatzen ditut igandean bertara gerturatu eta animatzera etortzea, eskertuko dira animo horiek”.



Iraitz Arruabarrena, Julen Ollokiegi, Endika Gartzia eta Iñaki Letamendi herritarrak izango dira Zegama-Aizkorri lasterketan lehian.

# Badator 11. antzerki eta dantza astea

Ekainak 5etik 15era antzerkiaz eta dantzaz gozatu ahalko da Lasarte-Orian

**Beste urte batez, Kukukak antzerki eta dantza aste berezia antolatu du. Berezia batetik hamabostaldia delako eta bestetik urtero berrikuntza edo sorpresaren bat aurkezten dutelako. Ostiralean aurkeztu zuten aurtengo 11. edizioa. Desfile erraldoia, antzerkia eta dantza izango dira nagusi Lasarte-Orian hamabost egunez.**

Ekainaren lehen hamabostaldian, antzerkia eta dantzaz gozatzeko aukera izango da Lasarte-Orian. Beste urte batez, hamaikagarrarena da dagoeneko, antzerki eta dantza astea antolatu du Kukuka antzerki eta dantza eskolako Manuel Lekuona kultur-etxean. Joxe Mari Agirretxe, Kontxu Iartza, Estitxu Garmendia, Maider Oiarzabal eta Enara Ieregi Kukuka eskolako kideak, Pablo Barrio alkatea eta Xabier Goitia kultura arloko teknikariaren laguntzaz, ostiralean aurkeztu zuten aurtengo egitaraua.

Joxe Mari Agirretxek azaldu zuenez, "700 pertsona gara astero biltzen garenak. Adin mugarik gabe, eskola irekia baita".

"Balore hezitzaileak dituen proiektua aurrera eramaten dugu, bizirik dagoen proiektua eta geratzen ez dena.

Herrigintzan oinarritua dago, talde lana eta elkarlana potentziatzen duena eta euskaraz," gaineratu zuen eskolari buruz.

## Desfilea

Ondoren, 11. antzerki eta dantza aste honetako nondik norakoak azaldu zituzten.

Maider Oiarzabalek adierazi zuenez, hamabostaldia-aren aurrekari bezala, maiatzaren 25ean 19:00etatik aurrera Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ohikoa den "desfile erraldoia" izango da.

Honetan "eskolako ikasle guztiak parte hartuko dute, Kukuka eskolako kamisetarekin". Kamiseta izan ezean, Urruzola mertzerian salgai daudela gogoratu zuten.

Eta nahi izanez gero, eskolako kide ez direnei ere irekia dela aipatu zuten, "kamiseta berdea eraman behar dute horretarako".



Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, Pablo Barrio alkatea eta Xabier Goitia kultura teknikariarekin.

## Saio ugari

Gure herriko kaleak alaitu ostean, ekainaren 5ean hasiko da Antzerki eta dantza astea.

Astean zeharreko egunetan bi emanaldi izango direla aipatu zuten, goizetan ikasleentzat eta arratsaldeetan herritarrei irekiak, ostirala eta asteburuan izan ezik.

"Aurten taldeak nahasten saiatu gara. Gazte eta helduek

asteburuetan egingo dituzten emanaldiak eta LH mailako haurrek eta DBH-ko gaztetxoek astean zehar eskainiko dituzte haien lanak," azaldu du Kontxu Iartzak.

Honela, asteburuan dantza izango da nagusi, hala ere helduen antzerki taldeen lanak ikusteko aukera ere izango da.

## Esperimentazioa

Gainera, LH mailako gaztetxoek emanaldi bereziak egingo dituztela aipatu zuen Estitxu Garmendiak.

"Irakasleek formakuntza saioa batzuk jaso ditugu Galder Perez-en eskutik. Hauek ariketa praktikoak izan dira eta horretan oinarrituta bi montaje egin dira". "Hankaz gora nola ikusi" lanean LH1-3 mailetako gazteek parte hartuko dute eta LH4-6 mailatakoek, berriz, "Gauarik Gauena" lanean.

"Bakoitzean 10 talde izango dira. Ordu beteko emanaldia izango da. Baina ez dakigu ziur zer ikusiko den. Esperimentu bat da," azpimarratu zuen.

Gainera, proiektu honetan ikastetxe desberdinetako hau-

rrak nahastu dituztela jakitera eman zuten, "Zubietako eskolako haurrak, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta Landaberri ikastolakoak elkarlanean egingo dute".

## Dantza

Honetaz gain, dantza alorrean eman diren pausoak ere azaldu zituzten. "Euskal dantza trasmisio bezala ikusten genuen eta hortik abiatuta, euskal dantza sorkuntzarekin esperimentatzen hasi ginen. Iaz helduen talde bakarra zegoen eta orain bi daude," adierazi zuen Maider Oiarzabalek.

Era berean, dantza garaikideko talde kopurua handitu eta hauetan gizonen bat dagoela ere azpimarratu du, "hauek erreferente izatea nahi dugu. Gaztetxoetan badaude batzuk, Jokin Ayerregarai irakaslea esate baterako. Baina helduagoek ere parte har dezakete".

Horregatik, Kukukak herritar guztiak animatu nahi ditu 11. antzerki eta dantza aste honetan parte hartzera eta "antzerkia eta dantza egitera, gizoni batez ere".



Antzerki, zein dantzan adin guzietako herritarrak eta zubietarrak ikusiko ditugu Manuel Lekuona kultur-etxeako aretoan.



**Pizzeria Bar Jabetxea**  
**Rummy**

**Eguneko menua**  
Pizzak  
Hamburgesak  
Pintxoak

**Astebukaerako MENUAK**  
erakargarriak prezio onean

**Taldeentzako menuak**

**Kale Nagusia 71**  
**20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565**

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Txistorra

Solomoa baratxuritan

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Baserri pateak



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

## ARETO FUTBOLA.-

## Txindoki txapeldun

Kontsolazio txapelduna Albañleria Vertical izan da Ana eta Soi taldeari 3-2 irabaziz

**Areto Futboleko finalak jokatu ziren larunbatean kiroldegian. Kontsolazio txapelduna Albañleria Vertical izan zen Ana eta Soi taldeari 3-2 irabaziz. Finalan berriz, luzapenaren bigarren zatiaren amaieran eskuratu zuen lehenengoz txapela Txindoki tabernak. Bi partida handien artean Ostadarrek Asier Sagastiri kirolari onena saria eman zion eta Auzolan saria Saharar herriaren lagunak elkarteari.**

## TXINTXARRI

Larunbata arratsaldean areto-futboleko bi finalak jokatu ziren kiroldegian. Lehenengo hitzorduan, Kontsolazio finala izan zen. Honetan buruz-buru aritu ziren Albañleria Vertical eta Ana eta Soi ileapaindegia taldeak.

Oso berdindua joan zen partida guztia eta indarrak orekatuak mantendu ziren arren, binako berdinketa hautsi zuen Vertical taldeak hirugarren gola sartuz azken minutuetan.

2-3 emaitzarekin bukatu zen partida Albañleria Vertical txapeldun izendatuz, hauek Jalgunekoei lekukoa eman zieten.

Jalguneko gazteak ederki moldatu ziren euren partidaren. Gol erakustaldia egin zuten ikusleen txalo zaparrada eta animoen artean. Partida polita jokatu zuten aurreko partidako bi baldeetako jokalariren laguntzarekin.

## Omenaldia

Urtero bezala Ostadar SKT-kirolari onenari eta Auzolan sariak banatu zituen. Kirolari onenaren aitortza Asier Sagastiri judoka gazteari egin zioten, "azken urteetan judoan eta sanbo-an erakusten ari den maila onagatik".

Auzolan saria berriz, Lasarte-Oriako Saharar Herriaren lagunak elkarteari eman zitzaion. Elkarte honek 2001etik ari da lanean Sahararen alde "kanpamenduetara elikagaiak bidaliz eta Oporrak bakean programari esker Saharako haurrak herrira ekarri orporaldietan" lan hau egiteagatik saritu du Ostadarrek. Omenduek esker onez jaso zuten Ostadarren saria.

## Aurten Txindoki

Omenaldiak bukatuta eman zitzaion hasiera herriko areto-futboleko final handiari.

Txindokik iazko arantza kendu nahi zuen eta Buene-



Txindokik iazko finalari buelta eman eta Buenetxeari irabazi zion.

teak, berriz txapela eta ikurriña bere eskuetan mantendu.

Horrela partida borrokatua eta oso taktikoa ikusi ahal izan zen. 0-0eko emaitzarekin bukatu zuten partida eta luzapena jokatu behar izan zuten taldeek.

Luzapeneko bigarren zatiaren amaieran lortu zuten Txindokik gola sartzea. Buenetxeak ez zuen denborarik izan emaitzari buelta emateko eta ondorioz, aurtengo txapelduna lehenengo urtez Txindoki taberna taldea izan da.

Jokalariek euren zaletuekin ospatu zuten garaipena saria jasotzerakoan.



Omenduek partiden artean jaso zuten euren saria.

## ATLETISMOA.-

## Veroniz, Busto eta OIasagasti Gipuzkoako txapeldun

Atletismoko jubenil, junior, kadete, infantil eta alebin mailako gazteek Gipuzkoako txapelketak amaitu dituzte. Lehenengo asteburuan azken jardunaldia izan zuten, batzuk Donostiako Miniestadioan eta besteak Eibarren. Herriko atletismo taldeko gazteek lan ederra egin zuten, urrezko eta zilarrezko launa domina eta brontzezko bat eskuratu.

Yeray Veroniz, 100 metro lasterketan, izan zen lehena Gipuzkoako titulua lortzen.

Eneritz Busto kadeteak bi probatan lortu zuen garaipena. Batetik 110 m. hesi-lasterketan eta bestetik luzera jauzian.

Lan ona egin zuen ere Idoia OIasagasti kadeteak. 100 metro lasterketan garaile izan zen eta luzera jauzian zilarrezko domina eskuratu zuen.

800 metro lasterketan, Itoitz Rodriguez bigarren izan zen eta 2 minutuetatik oso gertu geratu zen.

Bestalde, Maider Rekondo eta Oihana Igarrirek bigarren postua eskuratu zuten xabalina-jaurtiketan, bakoitzak bere mailan.

## Brontzezko domina

Infantil eta alebin mailako txapelketan, berriz, Landaberriko Nerea Eugi alebinak



Gipuzkoako txapelketetan dominak lortu dituzten LOKEko gazteak. Galardi eta OIasagasti falta dira.

luzera jauzian 3. postua lortu zuen.

Aipatzekoa da ere Amaia Harto infantilak xabalina-jaurtiketan lortutako 5. postua.

## Klub txapelketa

Honetaz gain, LOKEko zazpi gazte, berriro ere, Bidasoa Atletiko taldearekin parte

hartu dute lehenengo mailako Espainiako klub txapelketan.

Mutilak Itoitz Rodriguez, Gaizka Ormazabal eta Jon Altuna Alarconen, Madrilen izan dira eta neskak, aldiz, Ane Galardi, Eneritz Busto, Maider Rekondo eta Maria Eugi L'Hospitalet-eko jardunaldian parte hartu dute.

## Beste lasterketak

Bestalde, mendi lasterketan edo kros herrikoietan dabil-tzan herritarrek ere ez dute atsedunik. Lehenengo asteburuan, Erlaitz Aiako harria proban Endika Gartzia bosgarren postua egin zuen eta Iruñea herriko maratoi erdian M<sup>o</sup> Carmen OIasok beterano mailako 8. postuan amaitu zuen proba.

## Agenda

Ostirala 24, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Gorputza zaintzea

Organik dantza antzerki taldeak "Incorpore sano" lana aurkeztuko du. Dantza taldeak gaur egun gorputza zaintzeak duen garrantzia ironiaz kritikatzeko duen garrantzia ironiaz kritikatzeko du bere lanean, gimnasia, dietak... Baina honek sor ditzakeen arazoak eta sedentarismoa ere jorratzen ditu. Leihatilan, 6,50 euro eta internet bidez, 5,4 euro. Eusko Jaurlaritzako Dantza bultzatuz zirkuituko ekitaldia.

### Lasarte-Oria

#### Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Ostirala 24, 22:30ean

Zarautzko Perlak taldeak bere pop-rock eta punk doinuak eskainiko ditu. Talakalve Olatu talka Donostia 2016 ekimenaren barruko ekintza.

ABEND KAFE-ANTZOKIA  
Ostirala 24, 23:45ean

Donostiako Kudai eta Etxebarriko Niketz taldeen kontzertua. Euskal Metal eta rocka entzuteko aukera izan-

go da. Sarrera aurretik 5 euro, leihatilan 7 euro.

#### Dantzari txiki

LASARTE-ORIA  
Igandea 26, egun osoa

Lasarte-Orian XXV. Dantzari Txiki eguna ospatuko da. Arratsaldean ekitaldi nagusia Okendo plazan izango da.



#### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Asteartea 7-Ostirala 31

Estudio del Pintor ikasleen margolanak ikusgai izango dira.



MANUEL LEKUNA KULTUR-ETXEA  
Ostirala 24-Asteazkena 05

Brancussi akademiako ikasleen margolanak eta marrazkiak ikusgai izango dira.

## Herritarren txokoa

#### Oztaran auzoan, lapurretak kotxeetan

Oztaran auzoko bizilagunek jakin arazten dute, azken asteetan hainbat kotxeetan sartu direla lapurtzera. Leihoak apurtu eta hauetatik baliozko gauzak eraman dituztela azpimarratu dute.

Beraz, auzo horretan kotxea uzten duten herritarrei oharta arazten diete kotxeetan baliozko gauzarik utz ez dezaten eta are gutxiago, bistan dela.

#### Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Maiatza Maria Auxiliadora amabirjinaren hilabetea da eta horregatik Zumaburuko Arantzazuko Amaren kapera bere omenezko meza berezia ospatuko da maiatzaren 26an, igandean, eguerdiko 12:30ean. Meza amaitzean luntx txikia konpartitzeko aukera egongo da.

#### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

#### San Pedro jaietako kale kontzertuetan parte hartu

Lasarte-Oriako San Pedro jaiak direla eta, Sorgin Jaietako taldea kale kontzertuak antolatuko ditu, ekainaren 28an arratsaldean.

Ekintza honen xedea, arratsalde horretan herria herritarren musikaz edo antzezlanaz girotea da, parte hartzea sustatzeaz gain, herritarren talentua ere ezagutzera eman nahi du.

Hori guztia dela eta, herritar guztiei deialdia egin nahi die taldeak, euren ahotsak eta instrumentuak hartu eta parte hartzera animatzeko.

Interesatuak jar daitezela harremanetan, honako helbide elektronikota sorginjaiak@gmail.com-era mezua bidaliz.

#### Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte beteko dira Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fueretik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bizitako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

#### Mus txapelketako afaria Lasartearra elkarteak

Lasartearra elkarteak antolatzen duen XXXVI. Mus txapelketako afaria ekainaren 1ean, larunbata, izango da. Ohikoa den legez, elkarte kide eta lagunek parte hartu ahaliko dute afari honetan.

Afari gozosa dastatu nahi duten herritarrek maiatzaren 28ra arte, egun hau barne, dute Lasartearra elkarte egoitzan, Erribera kalea 10 atzea, izena emateko.

#### Bakarrizketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Ostirala 31, 22:30ean

Ion Martinez "Txiki"-ren "Mil a zien, baietz parrez lehertu!" umorezko bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekintza. Euskaraz. Doan.

#### Astigarraga

#### Zinea

MUSIKA ESKOLA  
Ostirala 24, 18:00etan

Harold Lloid antzezleak 1923. urtean grabatutako "Safety Last!" film mutua proiektatuko da Josecho Fernandez de Ortega piano jolearen zuzeneko doinuez lagunduta. Doan.

#### Hernani

#### Musika

BITERI KULTUR-ETXEA  
Asteazkena 22, 19:00etan

Hernaniko Musika eskolako teklatu taldeak emanaldia eskainiko du. Doan.

#### Usurbil

#### Aste Kulturala

ZUBIETAKO PILOTALEKUAN  
Astelehena 20-Ostirala 24

Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak Aste Kulturala antolatuko du. Arratsaldetan, 17:00etatik aurrera, adin guztietarako tailerrak, jolasak, musika, antzerkia, herri kirolak... izango dira. Doan.

#### Sos del Rey Catolico-ra irteera

Biyak Bat elkarteok hilabete honetan Sos de Rey Catolico-ra irteera antolatuko du.

Bertan, herrixkako erdi aroko kaleetatik barrena ibili eta San Esteban eliza eta Sada-ko jauregia bisitatuko dituzte.

Txangoa maiatzaren 23an izango da eta autobusa goizeko 8:30ean aterako da elkarte aurreko geltokitik.

Irteerak 35 euro balio ditu elkarte-ko bazkideentzat eta 40 bazkide ez direnentzat. Izena ematea astelehenean hasiko da 10:30etik 12:30era.

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordu-lari, hiru betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, bi pultsera eta eraztun bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteke epea dute hauek ikuskatu eta jasotzeko.

Udaltzainen Bulegora hurbildu behar dira interesatuak, goizez 09:00etatik 13:00etara.



Irten aurretik Okendon familia argazkia atera zuten. Batukadako kideekin batera Jalgunekoak izan ziren.



Zo Zongokoek ikusle andana bildu zuten euren inguruan.

## Danbor hotsak euriari aurre eginez

### Lehenengo Batukada topaketa euripean burutu zen

**Eguraldi txarrari aurre eginez Euskal Herriko batukaden lehenengo topaketa burutu zen larunbatean. Dinbi Bandak antolatuta Zo Zongo, Taupada eta Beriba batukaden bisita izan zen. Lau taldeek aurrez prestatutako ibilbidea euriagatik baztertu zuten arren, herriko lau puntutan kokatu ziren euren danborrei gogoz eraginez. Okendoko emanaldia ere egin zuten oztopoak-oztopo.**

Euriak ez zuen goizean goizetik atsedetik eman eta larunabtean 12etan Okendon bildu ziren Dinbi Bandako kideak udaleko kultura teknikari eta arduradunekin batera zer egin erabakitzeko. Taldeek jotzeko gogoaz alduduz zuten hasieratik horregatik denak elkartuta,

herriko lau "aterpetan" jotzea erabaki zuten. Familia argazkia atera ostean, Dinbi Banda Buenetxeara joan zen, Beriba Okendoko oholtzan geratu zen, Zo Zongokoak BM-ko estalpean kokatu ziren eta Donostiako Taupada taldea Zumaburun ibili zen bere doinuekin giro tristea alaitu

nahian. Batukada bakoitza lagunduz Jalguneko lagunak izan ziren.

#### Okendon

Semblanten bazkaldu ondoren, Okendon egin zituzten emanaldi dantzagarri eta alaiak. Ateri uneetan herritarak, doinuek erakarrita, dantzara gerturatu ziren ere.

Lehenengo topaketa euripean izan arren, pozik azaldu ziren antolatzaileak batukaden esperientzia trukerako balio izan duelako eta elkarlanean jarraitzeko bidea hemendik aurrera zabaltzen delako.



Beriba eta Taupada batukadek euren doinuekin giro alaitzen saiatu ziren.



Dinbi Banda herriko batukadak sustatutako ekimena izan da lehenengo topaketa hau.



Euria atertu eta Okendo jendez bete zen arratsaldean batukaden doinuek erritmorra dantzatzeko.



## REFORMAS Javier Lasa

Tfnoa 688618596  
xabilasa@euskaltel.net

**Konpromezurik gabeko aurrekontuak**  
**Konponketak** Presupuestos sin compromiso  
**Bainontzi aldatzea** Pequeñas Reparaciones  
**Sukaldeak** Sustitución de Bañeras  
**Komunak** Cocinas Baños